

2013ko Otsailaren 09a - 301. zbk

Koaderno

Oihuen katea

Mikel Soto

Aurreko batean supermerkatu bateko ilaran ikusitako haserrealdi bat zela eta, “How I Met Your Mother” telesailiko “The Chain of Screaming” (Oihuen katea) kapituluarekin akordatu nintzen. Bertan, Barney Stinson pertsonaiak AEB korporatiboaren defentsa egiten du “Oihuen katea” izendatzen duen teoriaren bidez. Arthur nagusiak errieta egin diolako atsekabetuta dagoen Marshall lagunari teoria azaltzen dio: «Oihuen katea goitik hasten da: Arthurren nagusiaren nagusiak Arthurren nagusiari oihukatzen dio; Arthurren nagusiak Arthurri oihukatzen dio; Arthurrek zuri oihukatzen dizu; zuk etxera heldu eta Lilyri [Marshallen neska-laguna] oihukatzen diozu; Lilyk haurtzaindegiko haur bati oihukatzen dio; gero, haur horrek bere aitari oihukatzen dio, Arthurren nagusiaren nagusia dena, eta berriz hasten da guztia». Esan gabe doa Barneyk Oihuen katearen irakurketa guztiz positiboa egiten duela, sistema kapitalistaren ondorio eta bermetzat daukalako.

Ez daukat guztiz argi kapitalismoak honetara ekarri ote gaituen. Gorroto ditut iragan aurrekapitalista idiliko protosozialista, protodemokratiko eta feminista *avant la lettre* bati buruz aritzen diren teoriak, bereziki euskaldunak –edo nafarrak– badira. Baina egia da beste gizarte batzuek beste joera batzuk bultzatzen dituzten hein berean, kapitalismoak joera historiko samar batzuk indartzen dituela. Esango nuke Mendebaldearen parte garen heinean, gu ere horretan harrapatuta gaudela. Haragiaren azpian dagoen haserre ibai erraldoi bat sumatzen dut egunero: lanean, kalean, tabernetan, koadriletan, bikoteetan.

Zoritxarrez, sentsazioa daukat haserre hori ahulenari zuzendua dagoela beti. Ez da, inondik ere, Che Guevarak borroka faktore gisa goraiatzen zuen gorrotoa. Barneyk azaltzen duen egiatik gertuago dago: «Zure nagusiak oihukatzen dizunean zuk sekula ez diozu oihuka erantzuten». Ez du hutsik egiten. Oker egoteagatik edo hanka sartu izanagatik barkamena eskatu izan dut eta ekintza ustez positibo horrekin haserrea handitu dut. Izan ere, aurrean daukazunak ez zaitu –berehalakoan behintzat– barkatu nahi, ez du zure barkamena behar. Behar duena, batez ere, haserrearen kanila irekitzea da eta, haren begien aurrean barkamenak ahuldu egiten zaituenez, haserreak bere bidea egiten du, libre. Bitxia da, bitxia denez, behin baino gehiagotan egoera honetara heldu bainaiz: «Gaizki jokatu dudala aitortu dizut, barkamena eskatu dizut behin baino gehiagotan, ez dut beste behin egingo, hemendik aurrera zuk ikusi». Stop seinale horrek, automatikoki eta salbuespenik gabe, oihuen kateari buelta ematen dio, eta, bat-batean, haserrea desagertu eta giro ona hedatzen hasten da –hasten du–. Oso tristea iruditzen zait eta, gainera, orduan hasi ohi da nire haserrea, pertsonarekin edo kapitalismoarekin, ez daukat argi.

Bego Montoriok itzuli duen eta martxoan kaleratuko den Jose Carlos Fernandezek “Munduko bandarik txarrena” komikiaren kokaleku apokrifoan Gezurkeria eta Diletantismoaren goi mailako eskola existitzen da. Bertako zuzendari den Hildebrando Lutz eskaintzen dituen ikastaroen berri ematen ari zaio Sebastian Zorn munduko bandarik txarrenaren kideari, horien artean Kalkulu deferentziala ikastaroa. «Kalkulu diferentziala?», galdetzen du Zornek. «Ez, ‘deferentziala’. Inguratzen gaituztenekiko deferentzia edo begiramen kalkuluari dagokio. Noren aurrean kendu behar den kapela, nori bidali zorion txartelak, zer ahots tonu erabili behar den igogailuzain batekin edo zerbitzuburu batekin». Liburuaren hitzaurrean, Harkaitz Canok pertsonaien ezaugarri behinena adorerik eza ote den galdetzen du. «Bai eta ez. Nondik begiratzen den, agian ez da zehazki horrela: beharbada, koldarren ‘barrura-begirako-adore’ horren jabe dira hain abisala eta hain prestigio gabetua dagoena garaiotan».

Esango nuke gurean barrura-begirako-adore horren faltak zikoitz bihurtzen gaituela, eta koldar. Koldar haserreak. •